

Gipuzkoan egindako KULTURA.

Naiara Elgarresta, Elur Etxea, Davidi Dú, Bekoop, Aloka, DAB dantza konpainia, ZirKuSS, Carlavilla Studio, Barandi Producciones eta Los Viajes de Aspasia dira, Kutxa Fundazioaren SORLEKUA MENTORETZA programaren eskutik, Gipuzkoako kultura-agertokia eraldatuko duten hamar proposamen disruptiboak.



Sorlekua Mentoretza programaren lehenengo deialdiko parte-hartzaileak

Aurkezpen publikoa

Otsailaren 22an, 18:00etan, aurkeztuko dira jendaurrean hautatutako 10 proposamenak, Kutxa Fundazioak eta Berri Up programak antolatutako ekitaldi batean. (Kutxa Fundazioa Plaza. Tabakalerako laugarren solairua)

Bien bitarteak, hautatutako pertsona guztiak azaldu dira pozik lehenengo deialdi honetan parte hartuko duten albistearekin. "18 hilabete dituzte haien proposamenek, gero eta lehiakorragoa den merkatu batean, ahalik eta inpakturik handiena izan dezaten lortzeko", adierazi du Kutxa Fundazioko Ainara Guzmánek.

Gogoberotasuna eta poza Sorlekua Mentoretzan parte hartzeagatik

"Gogoberotasunez eta pozez jaso dut albistea. Etengabeko babes honekin, konfiantzaz egin dezaket aurrera proiektu hau aurrera eramateko ematen dudun urrats bakoitzean," dio Davidi Dú zerbitzuko Davinia Pérezek.

Naiara Elgarresta, poltsa, oinetako eta osagarri marka baten sortzailea da, eta uste du "aukera paregabea" dela "markaren garapenarekin eta hazkundearekin jarraitzeko, egitura askoz profesionalizatuago eta analitikoago baten babesean".

Gipuzkoan zirku garaikidea ezagutzera ematea da ZirKuSS egitasmoko Lander Brionesek duen helburuetako bat: "bideak ireki, kulturaren industriako profesionalekin harremanak egin eta gure ikuskizunak Gipuzkoako hiri eta herrietan programatu ahal izateko lagungarriak izango dira hilabete

hauek", era horretan, epe luzera begira proiektu kaudimenduna izan dadin.

Proiektu kaudimendunak lortzea

Elur Etxea proiektuko Andoni Mutiloak ere aipatzen du kaudimenaren gaia. 2020an sortu zuen Mutiloak bere egitasmoa, arte eszenikoen bitartez gizartea eraldatzeko helburuz.

"Euskal Herri osoan ia 100 emanaldi egin arren, proiektua oraindik ez da bideragarria ekonomikoki. Beraz, asko ikastea espero dut, nire lanean eraginkorragoa izatea eta sortu dudun konpainia sendotuz joatea".

Andoni Mutiloa

María Carlavillak emaztegaientzako soinekoak diseinatzen ditu Caravilla Studio, eta programa hau "unerik onenean jasoko dudun bulkada" dela dio. "Prozesu honetan nire proiektua bultzatzeko eta beste maila batean ezagutzera emateko gakoak aurkitzea espero dut".

Kulturaren arloko beste ekintzaile batek, Maria Jose Noain hondarribiarrak, dibulgazio historikoaren munduan dihardu lanean Los Viajes de Aspasia egitasmoarekin.

"Kutxa Fundazioa bezalako erakunde batek eta halako maila duen epaimahai batek zure proiektua ebaluatu eta interesgarria dela uste izateak zure oskoltxotik irten eta zenbat lan egin duzun eta oraindik zenbat egiteko duzun jabetu zaitez balio du".

Maria José Noain

Bekoop ekonomia zirkularreko kooperatiba osatzen duten hiru emakumeek, bestalde, zera uste dute: "gure enpresa-trebetasunak hobetzen lagunduko digu, horrela, kooperatibaren funtzionamendua indartu eta haren inpaktua eta hazkundera areagotzeko".

Hautatutako proiektu guztiei buruzko informazio gehiago www.kutxafundazioa.eus

Urte estrategikoa

Arte Eszenikoen munduan lan egiten du Barandi Producciones konpainiak. "Uste dut asko lagunduko digula gure enpresa-egitura hobetzen eta merkatu-ikuspegi hobea izaten", adierazi du Iñigo Santacanak.




Barandi Producciones

DAB dantza konpainiak, berriz, urte estrategikoa du aurrean, NCEUD bere lan berriaren estreinaldiarekin; lan horretan, Eduardo Chillidak eta Cristobal Balenciagak komunean zituzten lan-metodologiak hartzen ditu erreferentziatzat. Beraz, "mentoretza hau une aproposan iritsi zaio konpainiari, gure egitura hazteko aprobetxatuko baitugu".



DAB dantza konpainia

Aloka aplikazioa ere 2024an merkaturatuko da; profesionalen artean ikus-entzunezko materiala alokatzeko aukera ematen du. Maria Aizpuru CEOak dio Sorlekua Mentoretza "forma ematen amaitzeko eta, azken batean, behingoz airearatzeko aukera" izango dela.



Aloka